

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI



Talde Popularraren bozeramaile Borja Sémpere Pascualek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Literaktum hiriko nazioarteko literatura jaialdi gisa sustatzea dela eta. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Kultura da udal kudeaketaren eta gure gizartearen konfigurazioaren elementu eraldatzaile eta garrantzitsuenetako bat.

Donostiak lehen mailako kultura programazio bat du, baina ekitaldi nagusiak uztaila eta iraila bitartean egiten dira. Horren erakusle ditugu Jazzaldia, Musika Hamabostaldia, Kutxa Kultur Festibala eta Nazioarteko Zinemaldia, guztiak udako hilabeteetan egiten baitira.

Literaktum izeneko literatura ekitaldia azaroaren 12tik 23ra egiten da, eta jaialdi mestizo bat da, literatura gainerako hizkuntza artistikoekin eta garaiko eztabaida nagusiekin uztartzen baita. Dagoeneko jaialdi errotua eta arrakastatsua dela ikusita, beste pauso bat eman, eta Literaktumi beste dimentsio bat ematea proposatzen dugu, Donostia estatuko eta nazioarteko literaturaren erreferente izan dadin; aukera on bat, inondik ere, idazle ospetsuak nahiz hasiberriak gurera erakartzeko.

Joan den batzordean arlo horretako zinegotziak adierazi zuen bezala, bai Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiko haren homologoak adierazi zuten prest zeudela eta bazutela asmoa Donostiako Udalak azter zezan zer aukera dauden Literaktumi beste dimentsio bat emateko eta nazioartean ezagutarazteko, eta, beraz, zuzkidura ekonomiko bat emateko, hiriko liburu saltzaileak, idazleak eta gainerako kultur azpiegiturak ere jaialdian inplikaturak.

Asmo horrekin, eta kontuan hartuta Donostiako kultur eskaintzak urtean hiru milioi parte hartzaile baino gehiago mobilizatzen dituela eta publiko horien baturak 75 milioi euroren gastu

tertzarioa sortzen duela Donostiako ~~establezimenduetan~~, **KONTROL MOZIO** hau proposatzen dugu, gure kultur ereduaren ~~proiektzioan~~ handinahiagoak izateko, hiriaren erakar indarra aprobetxatuz eta herritarrei eskueran jarriz hiri gutxi batzuen esku dagoen maila bat:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari birdimentsiona dezala gaur egungo Literaktum, mundu osoko idazleei zuzendutako nazioarteko literatur jaialdi bihurtzeko, eta, hala, gure hiria munduko literaturaren erakusleihu izan dadin.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hasi dadila akordio bat lortzeko gestioak egiten Espainiako Gobernuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, bai eta ekitaldia babestu, lagundu eta jasan dezaketen erakunde pribatuekin ere, Donostiako nazioarteko literatur jaialdi hau elkarlanean antolatu eta finantzatu ahal izan dadin.

Donostia, 2019ko azaroaren 13a

Borja Sémpere Pascual

Talde Popularraren bozeramailea